



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Vital Jaibusaren erabilerari buruzko arautegia

Oinarri orokorrak

Vital Jaibusa izeneko programaren **helburu bakarra** zera da, Arabako hainbat herritako jaietara joan nahi dutenei eramatea erraztea, beren kabuz ezin dutelako edo beren ibilgailuaz arriskutsua izan zitekeela uste dutelako.

Vital Fundazioak, programa hau dela eta, **ez du antolatzen beste inongo ekintza eta ez da horren erantzule** herri desberdinetan programaturiko jai ospakizunei dagokienez.

Vital Fundazioak erabiltzaileen esku jarritako garraio bideen bidez egindako zerbitzuaren ardura soil-soilik hartuko du bere gain, eta erabiltzaile hauek eskaini zaizkien garraio bideak uzten duten unetik aurrera egin ditzaketan jardunez kutxa **ez da erantzule** izango.

Programa honen garapenean Vital Fundazioak **hartzen duen erantzukizun bakarra** borondatez horrela eskatzen duten erabiltzaileak helbidera edo itzulira garraiatzea izango da. Joateko nahiz itzultzeko bidaietan arautegi orokorrean agertzen diren baldintzak errespetatu beharko dira. Horrela ez balitz, antolatzaileak aipatutako arautegia betetzen ez duten balizko erabiltzaileak ez onartzeko eskubidea berarentzat gordeko luke.

Zerbitzu berezi bat da, plaza murriztuak dauzkana, eta garraiobide publikoaren arautegi orokorraren menpe dagoena.

Arautegi orokorra

1. Ibilaldiak eta geralekuak: autobusek bakarrik aurrez finkatutako ibilaldiak egingo dituzte, eta geralekuak programaren zabaltze orokorrean zehaztu diren lekuetan eta ordutegietan soilik izango dira.

Prestatu diren ibilaldien konplexutasuna dela eta, ordulegiak gutxi gorabeherakoak dira, beraz, antolatzaileek ez dute bere gain hartuko izan daitezkeen atzerapenak, betiere antolakuntza beratik kanpoko arazoengatik izaten badira.

2. Adinaren muga. Izen ematea pertsonala eta besterenezina da. Izena eman duten 15 urtetik gorako lagunek soilik erabili ahal izango dute zerbitzua, edo 15 urte beteko dutenak, Jaibus Vital Zerbitzua antolatzen den urtean. Autobusean sartzeko ezinbestekoa izango da nortasun agiri pertsonal bat aurkeztea, nahiko izan beharko dena erabiltzailea izena eman duen pertsona bera dela eta adin baimendua duela egiaztatu ahal izateko.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko engainuz aritzen diren adin gabekoen garraioaren erabilpenaren ardura.

3. Garraio egokitua. Jaibus Vital zerbitzuak **garraio egokitua** eskainiko die hala eskatzen duten erabiltzaileei. Zerbitzu hori erabili nahi duten pertsonak izena emateaz gain, euren eskaeraren berri eman beharko dute Jaibus Linea zerbitzuaren arreta-ordutegian. Gasteizko jaietan, eskaera hori abuztuaren 3ko 13:00ak baino lehen egin behar da.

4. Garraioa erabiltzeari uko egitea:

Txartela ordaintzeak garraiatze eskubidea ematen du, ezarritako ordutegien arabera. Izena eman duen erabiltzailea ezarritako tokian eta orduan ez balego, ibilbideak hasterakoan, bidaiari uko egiten diola ulertuko litzateke, beraz, ez du eskubiderik izango dirua berreskuratzeko. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko ezarritako tokian eta orduan egoten ez diren erabiltzaileekiko ardura.

Erabiltzailearen batek joateko bidaia egingo ez balu ere, itzultzekoa erabili ahal izango zuen, eta alderantziz. Kasu horretan, txartelaren prezioak zerbitzu osoari dagokiona izaten jarraituko du.

5. Gaurko arautegi honen balizko aldaketei buruz: antolakuntzak beretzat gordetzen du oraingo arautegi honen alderdiren batzuk aldatzeko eskubidea, betiere edozein aldaketa egingo balu, programaren publizitate orokorraren bidez hedatuko lukeela.

6. Ibilbideen balizko etetei edo aldaketei buruz: antolakuntzak beretzat gordetzen du ahalmena ibilbideak edo geldialdiak bertan behera uzteko edo ibilbideak batzeko, erabiltzaile nahikoak izango ez baziren edo txartelen salmentaren banaketak horrela gomendatuko balu. Ibilbide bat egiteko erabiltzaileen **gutxieneko kopurua 8** lagunekoa izango da.

Jaibusa erabiltzeko eta Bidaiariak hartzeko arau orokorrak

Legez dagozkenez gain, ondoko legeek eta araudiek zehazten dituzte zein arau-hauste, debeku edo baldintzarekin erabiltzaileek errepideko garraio kolektiboa erabili beharko duten:

Errepideko garraioko merkatuan eskumen eta segurtasun baldintzak hobetzeari buruzko urriaren 8ko 29/2003 legea:

142.20 Artikulua

..., atal honetan tipifikatutako arau haustetzat hartu egingo da,

Bidaiarien garraioko erabiltzaileen aldetik ondoko debekuak ez betetzea:

20.1 ibilgailuetara sartzeko ateen irekidura edo itxidura oztopatzea edo bortxatzea.

20.2 garraio enpresako langileek bakar-bakarrik erabili ditzaketen ibilgailuetara sartzeko ateen edo bere edozein konpartimenturen irekiera- edo itxierako gailuak maneiitzea.

20.3 arrazoi justifikatu gabe larrialdietarako ibilgailuan ezarritako segurtasuneko edo laguntzako edozein gailu erabiltzea.

20.4 toki bakoitzean zehazturiko geralekutik kanpo ibilgailutik jaistea edo ibilgailuan sartzea, kasu justifikatuetan izan ezik.

20.5 ibilgailua martxan dagoen bitartean, arrazoi justifikaturik izan gabe, gidariaren arreta galarazteko edo bere lana oztopatzeko edozein ekintza egitea.

20.6 erabiltzaileentzat egokitutako tokietatik kanpo bidaiatzea.

20.7 ibilgailuetan eta garraio geltokietan, helburu horretarako egokitutako tokitatik kanpo, erretzea, gaiari buruz berariazko arautegiak ezartzen duen arabera.

20.8 garraio titulurik gabe edo berari dagokion ematean edo baimentzean aurreikusitako bidaiaren ezaugarrien eta erabilera baldintzen arabera nahiko ez den tituluarekin bidaiatzea, baita titulu beraren erabilera okerra ere.

20.9 ibilgailuetan edo garraio geltokietan kalte edo zikinkeria eragin ditzakete arrazoirik gabeko ekintza guztiak.

1428/2013 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, zirkulazio-araudi orokorra onartzeko dena

11. artikulua. Pertsona-taldeak garraiatzea.

2. Pertsona-taldeak garraiatzeko zerbitzu publikoko ibilgailuetan bidaiariak debekatuta dute honako hauek egitea:

- a) Ibilgailua ibili dabilela, gidariari arreta galaraztea.
- b) Behar ez den lekutik ibilgailuan sartu edo ibilgailutik irtetea.
- c) Ibilgailua beteta dagoela jakinarazi arren, bertara sartzea.
- d) Pertsonen pasaguneetan beharrik gabe ibilia oztopatzea.
- e) Animaliak eramatea, animaliak garraiatzeko leku berezirik eduki ezik. Hala ere, debeku horrek ez du balio itsuentzat, laguntzeko hezitako txakurrik badaramate; beren erantzukizunpean izango da beti.
- f) Gai edo gauza arriskutsuak eramatea, gai horri buruzko berariazko arauetan finkatutako baldintzetan egin gabe.
- g) Ibilgailuko gidariak edo arduradunak zerbitzuari buruz emandako jarraibideei jaramonik ez egitea.

Pertsona-taldeak garraiatzeko zerbitzu publikoko ibilgailuetako gidariak, edo, arduradunak badago, arduradunek, paragrafo honetan finkatutako aginduak betetzen ez dituzten bidaiariei ez diete ibilgailuan sartzen utzi behar, eta, barruan badaude, irteteko agindu behar diete.

1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Lurrako Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Araudia.

76. artikulua.

2. Zerbitzuaren erabiltzailetzat onartu beharko dira hala nahi duten guztiak, eta, beti ere, hurrengo baldintza hauek beteta:

1. Bidaia bakoitzean eskaintzen den plaza kopurua ez gainditzea.
2. Zerbitzurako ezarritako prezioa ordaindu dadila.
3. Beste erabiltzaileei arriskurik edo eragozpenik eragitea ekiditearren, osasunari, osasungarritasunari eta higienerari dagozkien beharrezko eta gutxienezko baldintzak bete daitezela.
4. Ez dadila eraman gauzarik bere tamainagatik, osaeragatik, nahiz beste edozein kausarengatik, beste bidaiarientzat nahiz ibilgailuarentzat arriskua edo eragozpena eragin dezakeenik.
5. Ez daitezela aztoratu oinarritzko heziketa- eta bizikidetzeta-arauak.
6. Garraio, Turismo eta Komunikazio Ministerioak xedatzen dituen beste guztiak.

Artikulu hauekin batera zehapen-araubideak ere daude

Horren inguruan, Jaibus Vitaleko antolatzaileek ondoko arauak finkatu dituzte:

- a. Erabiltzaile guztiek behatu eta bete behar dituzte aurreko araudiek edo legeek xedatutako aginduak.
- b. Erabiltzailearen batek arauen bat hausten badu, debekatutako zerbait egiten badu edo aurretik aipatutako onartuak izateko baldintzak betetzen ez baditu, ondoko moduz jokatu da:
 1. Autobuseko arduradunak edo gidariak aipatutako erabiltzaileak ez onartzea erabaki dezake.
 2. Behin erabiltzaileak autobusean igo, autobuseko gidariak edo arduradunak aurretik azaldutako egoeraren baten arabera jokatzeko duen erabiltzaileak ohartaraziko dituzte.
 3. Ohartarazi ondoren ez badu jaramonik egiten, arduradunak hurrengo geltokian autobusetik jaitsi beharko dela jakinaraziko dio.
 4. Bere horretan jarraitzen badu edo arau-hauslea adingabea bada, autobus geldituko da eta dagokion Poliziari (Ertzaintza edo Guardia Zibila) egoeraren berri emango diote egokia dena egin dezala.
 5. Kasu guztietan, garraioaren arduradunak zerbitzua gaizki erabili duen erabiltzaileari dokumentazioa eskatuko dio arau orokorreko 2. araua betetzen dela egiaztatzearen.
- c. Arauak hausten dituzten erabiltzaileen identitatearen inguruan ikertuko dute Jaibus Vitaleko antolatzaileek eta, egokia balitz eta jarreraren larritasuna aintzat hartuta, salaketa jarri ahal izango dute eskumena duen agintaritzan. Adingabeak badira, gurasoei edo tutoreei adingabeek egindakoaren berri emango zaie.
- d. Jaibus Vitaleko antolatzaileek sarrera debekatu ahal izango diete garraio modu larrian edo behin eta berriz gaizki erabiltzen dituztenei. Istiluak sortzen dituztenak identifikatu ezean, kautela neurri hartzeko eta liskar gehiago gerta daitezela ekiditeko, Jaibus antolakuntzak era kolektiboan eta mugagabeen zigor dezake arazo sortzaileen lagun- taldea, liskargileak nortzuk diren identifikatu arte.
- e. Ikusten bada arau-hauste gehienak egiten dituztenak edo zerbitzua oker erabiltzen dutenak geltoki berekoak direla, Jaibus Vitaleko antolakuntzak aipatutako geltokiak ibilbidetik kentzea erabaki dezake.